

Euskararen aldeko herri- mugimenduak: praktika eta teoriaren arteko uztadura

I. Herri-mugimenduen sorrerako baldintzapenak: frankismoaldia

*Gizarte-mailan dauden talde euskaldunak
(Euskal Herrian Euskaraz, EKB, AED...)
nazioaren erdigunean kokatzen dira.*

(Txepetx, Argia, 90-3-4)

Aipu horren esanari bagagozkio, euskararen aldeko herri-mugimenduak bihotzaren bihotza izango lirateke. Hizkuntz nazioaren eraikuntzarako ezinbesteko indarra eta euskarria: eukaraz ekoizten bait dute talde hauek beren jarduna eta

borroka eta euskaratik interpretatzen bait dituzte beren gogoeta-pentsamenak. Nolanahi ere, herri-mugimenduaren fenomenoak euskal hiztun soiletara murrizteza izango da, nahiz eta mugimendu horretan euskal hiztuna ardatz eta burmuin izan.

Definizio bila

Euskalgintzaren hastapenak, bai oraingo txandan eta bai gerra aurrekoan, herri-mailako ekimenei zor zaizkie batez ere. Euskararen aldeko ekintza-asmoetan erakunde ofizialeko ordezkari edo bitartekorik dagoenean ere, euskalgintzaren jatorri-asmoa eta geroko butzapena herri-erakundeetako euskaltzaleen bizkar egon izan da.

Euskararen aldeko ekintza-asmoetan erakunde ofizialeko ordezkari edo bitartekorik dagoenean ere, euskalgintzaren jatorri-asmoa eta geroko butzapena herri-erakundeetako euskaltzaleen bizkar egon izan da

Euskaltzale andana baten ekimenari zor dio Ikastola-mugimenduak bere egungo garapena eta egoera. Bide beretik sortu eta hazi zen Euskalduntze-Alfabetatze jarduna. Gauza bera gertatu zen euskarazko liburugintza eta aldizkarigintzaren arloan ere. Eta orobat esan dezakegu gainerako agerpen eta ekinpide guztiei buruz. Egia da, ezin uka, urri eta bakan baziren ere, bazirela erakunde ofizial edo erdi-ofizialak euskara eta euskal kulturaren arloan; baina hauen joan-etorria bera ere esplikagaitza bihurtzen da aginte-espaziotik kanpo jaio eta garatu den euskal mugimenduaren koordinatueta ez bada.

Atal honetako harira itzuliz, zer-nolatan definitzen da euskararen aldeko herri-mugimendua? Nondik-norakoak ditu mugimendu horrek bere ezaugarren luze-laburrak? Esan berri dugu, ezin dela besterik gabe hiztun tipologia jakin batekin identifikatu bere zentzu zabalean bederen. Izan ere, bere sorreran ez ezik bere ondorengo bilakabide luzean ere era askotako hiztunen eskuharmenez eraiki bait da gaur egun ezagutzen dugun neurrian. Esan nahi bait da, hor jardun izan dutela erdaldun euskarazaleek ere beren lan-neke guztiekin. Gauza bera aitortu beharko genuke elebidun pasibo eta beste zenbait hiztun-motari buruz ere.

Diogun beraz, euskalgintza, maila honetan behintzat, euskararen aldeko jarrera-ideologia batetik erne eta hedatu dela eta bere erditze-hazkundetan era askotako euskaltzaleak aritu izan direla.

Borondatea gidari

Euskalgintzaren esparru-barruti gehienetan hastapenak antzekoak izan dira; bakoitzaren izate formal-ofizial/informal-ezofizial eite-moldeen arabera gauzak hobeto edo okerrago egin izan dira. Ikastolen erditzea bera ere ez zen batere baldintza legal-formalak beteaz egin hasiera-hasieran. Bai giza baliabideen aldetik eta bai egoizatestuliburuaren aldetik, ezkutuka jaiok eta zabalduak izan ziren. Behin lege-baldintzen (Eliza edo beste erakunde-instantziren baten itzalean alegia) kokatzen zirenean hasten dira, ezinbestez, zenbait errequisito eta arau betetzen; ez zeuden alferrik Hezkuntz Ordezkaritzak, horretarako behintzat.

Alfabetatze-kanpainak ere antzera hasi ziren. Luza gabe eman zitzairen nolabaiteko babesa: Euskaltzaindia bera egin zen mugimendu honen erantzule eta sortzaile. Fenomeno honek ez zuen noski ikastolen eraginik eta oihartzunik eta, gainera, ez zegoen irakaskuntza erregulatuaren sarean txertatua. Gainerako euskalgintzako eremuak ere ezerezetik erne ziren era euskaltzale haien borondate eta nekea zuten euskarri eta zutabe.

Gauzak egin egin behar ziren, zer-nolakoetan gehiegi pentsatu gabe. Ikastoletan bertan egongo zen nonbait egotekotan, gerra aurreko esperientzi apurra: urteen joanak, halere, orduko ikaspide eta ikastereduen baliagarritasuna aski urrituak zituen. Ez zegoen, beraz, gauzak behar bezala egiten hasteko modurik eta baliabiderik: nola edo hala haurrak euskaraz hezi behar ziren; nola edo hala geure hizkuntzan alfabetatu nahi genuen horretarako ia ezer ez bazegoen ere prestaturik; nola edo hala saiakera-liburuak

Euskararen aldeko herri-mugimendua bere sorreran ez ezik bere ondorengo bilakabide luzean ere era askotako hiltunen eskuharmenez eraiki da gaur egun ezagutzen dugun neurrian: hor jardun izan dute erdaldun euskarazaleek ere beren lan-neke guztiekin. Gauza bera aitortu beharko genuke elebidun pasibo eta beste zenbait hiltzun motari buruz ere

eta astekeriak kaleratu behar ziren, irakurlegoarena zertan zen gehiegi aztertu gabe.

Bitarteko-baliabideen sorkuntza

Euskarak hezkuntz sistema eta komunikabideetan lehendabiziko urrats apalak eman orduko, euskaltzale eta euskaralari andana bat berehala konturatu zen hizkuntza honen oinarri-oinarrizko arazo batetaz. Euskara ez zegoen esparru eta eginkizun horietarako gertu euskalkiz euskalki banandua zegoenez gero eskualde desberdinetan barrena. Euskara batua edo hizkuntza standardizatu baten oinarritzko baldintzak betetzen dituen komunikabidea ezinbestekoa zen eginbehar horietarako. Eta halaxe ekin zion Euskaltzaindiak, oraingoan ere, euskaltzale andana horren eraginez: egiten zena egiten zela, beti aurkituko dugu herri-ekimenik euskalgintzaren arlo honetan. Erakunde-instituzioak dinamika horren atzetik datoz, datozenean, zeren etorri nahi ez zuenik ere bai bait zen (Euskerazaintza, Goiz Argi,...).

*Euskalgintzako
eremuak
ezerezetik erne
ziren era
euskaltzale haien
borondate eta
nekea zuten
euskarri eta
zutabe*

Baturanzko euskara ez ezik, besterik ere behar zen noski erronkari aurre egingo bazitzaion. 60.gor hamarkada hartan ekin zitzaion mugimendu zabal eta oparo honi; ez zen izan, norbaitek hala usteko balu ere, hizkuntz kulturazko identitate soilaren barrunbetik bapatean jaiotako fruitua. Marko zabalago batean kokatu beharko genuke guzti hau, eta horretan erreferentzia politikoek lehen mailako lekua lukete, baina ez da hau horretarako tokia eta bego oraingoz aipamen huts honekin.

Nola arraio lortu ziren beharrezko baliabide eta indarrak? Ikastolen eremuan herrian herriko euskaltzale eta gurasoak, inoiz Udalen laguntzarekin, egoitzak moldatzen zituzten eskuahar zegoena hartuz. Horretarako dirua eta auzo-lana ziren nahitaezko premia, eta hori pentsa ezinezko mailetan lortzen zen toki batzutan: gure herriak ondo asko frogaturik dauka maila batzuetako erantzun-ahalegina egiteko ez daukala nagirik (lekuko ederrak dira, besteak beste, Kilometroen antzeko ekintzak). Gau-eskolen ibilbidean,

beste maila xumeago batean, gauza beretsua gertatzen zen: sistema frankistaren aurka zegoen oro prest zegoen euskararen alde zer edo zer egiteko eta ikasgelak lortzea ez zen hain zaila izaten herriko elkarteei laguntza eskatuz.

Euskal kulturaren ernaldi berri honetan, esan bezala, herri-indarrak izan ziren eragin eta bultzatu zutenak. Instituzio frankisten babesik espero izatea inozokeria galanta zenez, inoiz Elizaren itzalpean ihardun behar izan zen irakaskuntzaren arloan. Gu ez gara izan euskalgintza haren lekuko eta lekuko izan zirenen eskutik honelakoak irakur ditzakegu:

Zenbait parroki eta komentuk eskaini zuen laguntzaz kanpo, lekuari buruz gehienak, eta Aurrezki Kutxak jalkitzen hasi ziren diru apurraz gainera, ezin dezakegu esan erakunde ofizialek funtsezko laguntza eman zutenik

(1972, Jakin-6, Iñaki Aizpurua, 22.or.)

Hurrengo lerrootan arras zehatzak dira autore berberaren hitzak Elizaren laguntzari buruz. Eta ulerbiderako ibilaldian zehaztasuna oinarritzko baldintza denez, demaiogun berriro ere hitza berari:

Hau da esan beharra guziaren aurretik: Elizak ez duela zerikusi handirik ukan ikastolen sortzean, Estaduak edo beste zernahi erakunde ofizialek ukan ez duen bezalaxe. Halere, uste da zenbait elizgizonen aldetik begi honez ikusia izan zela ikastolen sortzeko gertakizun hau (26.or.).

Bitarteko-baliabideen arlo zabalean, egoitzak eta ikastegiez gain, testu-liburu eta giza baliabideen behar gorria nabarmentzen zen. Nondik sortu irakasle-andereoak Magisteritzako eskoletan euskara eta euskal kulturri zegokion oro gauza erabat arrotza baldin bazen? Giza baliabideen sorkuntza honetan ere herri-ekimenen irudimena eta nekea paregabea izan zen. Honela kontatzen digute esperientzia paregabe hartan eskuhartu zutenek:

*60.go hamarkada
hartan ekin
zitzeaion
mugimendu zabal
eta oparo honi; ez
zen izan, norbaitek
hala usteko balu
ere, hizkuntz-
kulturazko
identitate soilaren
barrunbetik
bapatean jaiotako
fruitua*

Hainbeste Ikastola berri sortzean, irakasle eza zen arazo handietneariko bat. Ez bait zen behar hainbat maixtra euskaldun, baina arazoa nolabait konpondu behar zen eta Ikastolagintzarako zenbait gaitasun edo prestaketa harturik prezixo titulurik izan gabe ere lan hau egin zitekeela eta lanari ekiten zitzaion. (...) Ikastolaren zer-egin handia ikusi ondoren, euskal irakaslegaiekin zerbait egitea pentsatu zen. Honela, bada, dela zortzi urte-edo, Donostian hezitzaileen eskola (Joanes Etxeberri Hezitzaileen Eskola) sortu zen. (...) Egun ikastoletan diren irakasle gehienak eskola hontan bizituak dira.

1972, Jakin-6, Arantxa Allur, 48.or.).

Helduen alfabetatze zereginetan ere ez ziren hastapen haiek teoria sakonetan murgiltzekoak izan. Lan praktikoari ekin, hori izan zen orduko goiburua, ondoko testu-zatian aditzera ematen duten moduan:

*Giza baliabideen
sorkuntza honetan
ere herri-ekimenen
irudimena eta
nekea paregabea
izan zen*

Lan praktikoari ekin behar zitzaion. Herriz-herriko zabalkundea egin, alfabetatzeari buruzko kontzientzia bat sor-arazi jendeari, irakasle izateko jende egokia topatu ta gaitzeko moduak egin... Mila lan. Rikardok berak ba zuen herrietan hamaika ezagupide hitzaldi bidez eta Z. Argia-ko idazle zenez egina. Hauetara jo zen batetik, eta bestetik Herri Gaztediko eta antzerki sailletako ekintzaleengana. Zabalkunde lan hau, ordea, bat besterik ez zen. Ba zen beste garrantzi handikoa: Metoduarena, jendea nola alfabetatu. Hortarako hauxe burutu zuen Rikardok: lehendabizikoz, herritako irakasle zitezkenak alfabetatzeari buruzko hamabost eguneko ikastaldian gaitu gramatika, literatura eta erabili behar zuten pedagogiaz.

(1971, Jakin-3, Alfabetatze batzordeak, 55 or.).

II. Euskararen ideologiak: haustura baten erditzea

Garai normaletan politikaren sailean oportunitismoa baldin bada arrisku nagusia (orain, esate baterako), normal ez diren garaietan (frankismoaren garaian, esate baterako) politika militantismo da, multzo txikietan jakina; eta, dena edo gehiena gerorako proiektuenez gero, ideologiak indar handia hartzen du. Teorizaleen garaia da; teologoena ere bai gure herrian

Txillardegia: *Euskal kulturaren zapalketa* 1956-1981, 62. or.

Teologo, ideologo eta teorikoak, beraz, aspaldi ditugu geure artean; hor goian Txillardegik ondo asko aditzera ematen duen bezala. Batez ere, ideologoak, politikagintzaren arloan lehenik, ondoren euskalgintzaren arloko auzi-mauzitan zeresanik bazutelakoan. Elebitasuna, diglosia edo hizkuntz gatazka bezalako kontzeptu-ideiak aspaldikoak dira gure artean, aldizkari mailan bederen. Baina kontzeptu horien atzetik eta barrendik zegoen esanahi zehatza aski lausoturik baldin bazegoen alde batetik, artean ez zegoen baldintza orokorrik gerora diskurtso berria deiturikoa bere oin sendoetan tinko ezartzeko. Horretarako aski da ondorengo aipuaren inguruan ageri diren bi izenak gogoan hartzea, besterik gabe, orduko izenak eta oraingo izenak non dabiltzan jakinik, hizkuntz borrokaren eta beste borroka batzuren suziak pizturik zenbat iraungo zuen konturatzeko:

Saiakera honi hasiera eman niolarik, euskal ezkerrearen mugimendu kritiko bat jaio berri zen ideologia alorrean. Joera honen lehen manifestazioak Haranburu-Altunak Anaitasuna-n publikatu zituen artikulu batzuk ziren

*Elebitasuna,
diglosia edo
hizkuntz gatazka
bezalako
kontzeptu-ideiak
aspaldikoak dira
gure artean,
aldizkari mailan
bederen*

(1976: "Euskararen ideologiak (I)" Jon Juaristi, 7. or.).

Euskararen arazo latzaz ohar zitekeen ideologiarik ezin zen erne oro har ideologia abertzalearen sustraietan ondo finkatu gabe zebilen korronteetatik. Eta horrela gertatu zen 1979an gerora Euskal Herrian Euskaraz deiturapean ezagutu izan dugun herri-mugimenduarekin. Sortze-dokumentuetan aski garden ageri dira euskara-ideologiaren zenbait elementu enpiriko, hots, hizkuntz borrokaren ondorioz oratutako pentsakizun-ideiak:

*Euskararen
arazo latzaz ohar
zitekeen
ideologiarik ezin
zen erne orohar
ideologia
abertzalearen
sustraietan ondo
finkatu gabe
zebilen
korronteetatik*

Hori guztia dela eta, amnistiaren eta beste borroka politikoaren alde sortu diren gestora delakoen antzera, euskararen aldeko talde eragileak sortu behar direla pentsatzen dugu, euskara espezifikoki diglosiatik eta heriotzatik salbatzeko; hemengo alderdi abertzaleak zoritxarrez, betekizun hori gehien batean ahaztuta dutelako.

Euskaltzaleen hizkuntz kontzientzia pitinka-pitinka bere heldutasun teorikora iristen ari da, eta guzti hori urte batzuetako borroka-ahaleginei esker: garbi dago, hortaz, hemen ere praktika teoriaren aurretik doala, hitzok oso zentzu zabalean hartuta. Euskaltzale sutsu hori ez da soilik ohartu alderdi abertzaleen aldetik dagoen hizkuntz jokabide makurrak. Alde eta aldi berean, bere gogoeta sakonei esker, beste auzi hauetaz ere konturatzen doa: hasiera-hasieran besterik uste bazen ere jadanik Ikastola ez da askitzat jotzen euskara salbatzeko; demokrazia burges formal eta arrotz baten baitan bizi dira baina euskarak ez du bere irtenbiderik aurkitzen dagoen diglosiazko gupil zorotik askatzeko; instituzio autonomikoen hizkuntz asmoak eta ekintzak ez datoz bat eta gainera ekintzetan hutsaren hurrengo somatzen bada, asmoak beraiek ere ez dira zuzen erizten elebitasunaren inguruko ideologizazio ikaragarri bat dagoela igartzean; euskararen auziak bere lanabesak behar ditu, bere-bereak dituen erakunde-diskurtsoa, bere autonomia erlatiboan efikazagoa bihur dadin.

Egia da, noski, borroka hutsak eta itsuak ez dituela bere urratsak ilunpetan egin, beti izan dela beste herrietako esperientzien berri eta informazioak, beti diogunean, egungo diskurtso berria baino lehenago esan nahi izan dugu. Ez da zilegi, beste izen batzuekin batera, Txillardegiren ekarpen teorikoa hemen isilpean uztea. Hizkuntzaren lehentasuna, printzipio nagusitzat (Torrealdai, Euskal Herrikerdal herrietara, 6. or.) duen euskaltzale suhar eta nekazekin honek bereak eta bi eman eta zabaldu ditu euskal soziolinguistikaren baratz berrian. Ez dago horretarako aipatu berri dugun liburuan Euskararen arazoak, Etnia-arazoak eta Hizkuntza, pentsakera, diglosia atalak begiztatu besterik.

Diskurtso berria euskararen borrokarako

Besten idazkiak eta esanak hemen lardaskatzen hasi baino lehen, hitza ematea izango da gauzarik onena; eta hitza ematen hasita, zein egokiagorik lñaki Larrañaga baino? Hona bere hitzetan euskaldunen hizkuntz borroka luze eta gaitzari atera zaion kimu teorikoa, praktikaren ondoriozko formulazio kontzeptuala. Oso oker ez banabil Txepetx bera da berak ez duela ezer berririk asmatu esaten lehendabizikoa. Goazen, bere luzean, aipua hona aldatzera, Txepetxen ekarpen teorikoa lñakik nola ikusten duen jakiteko:

Bata: Erreferentzia bezala erabiltzen duen marko kontzeptuala; hau da, berak asmatu duen eskema teorikoa eta formulatzeko era egokia. (...)

Bestea: Marko teoriko hori definitzerakoan egin dituen azalpen batzuei esker, behin-betiko argituak gelditu dira zenbait puntu, eta gaindituak, diskurtso zaharrari zegozkien beste hainbat. (Azpimarraketa neurea da).

Lehenbizikoen artean aipatu beharko litzateke

*Euskararen auziak
bere lanabesak
behar ditu, bere-
berek dituen
erakunde-
diskurtsoa, bere
autonomia
erlatiboan
efikazagoa bihur
dadin*

*Egia da borroka
hutsak eta itsuak
ez dituela bere
urratsak ilunpetan
egin, beti izan dela
beste herrietako
esperientzien berri
eta informaziorik,
beti diogunean,
egungo diskurtso
berria baino
lehenago esan
nahi izan dugu*

hizkuntz komunitateei eta hiztunei ematen dien garrantzia, hizkuntz komunitateen arteko berdintasun-printzipioaren defentsa sutsua, hizkuntz komunitate bakoitzari lurralde bat zor zaiola garbi defendatzea, hizkuntz ikasketaren teoriak ematen dituen argibideak eta hizkuntzaren normalizazio eta plangintzan kontutan izan behar diren elementuen jokia eta zerikusia, eta, azkenik, etendura-tentsioari buruz ematen dituen argibideak.

Bigarrenen artean, behin-betiko gainditurik gelditu direnen artean alegia, elebitasun sozialaren tranpa edo mitoa, hizkuntzen arteko hierarkia edo subordinazioa, eskubide pertsonalen lehentasuna hizkuntz komunitateari dagozkien aldean, etab. izendatu beharko lirateke. Ondorio bezala, lan teoriko honek, Soziolinguistika aplikatuaren munduan mugitzen garenoi, mesede galanta egin digu, erreferentzia teorikoak argituz

(Iñaki Larrañaga: Jakin-42/43, 26. or.).

Txepetxen lan eskerga, beraz, han-hemenka, lotura logiko eta teorikorik gabe zebiltzan nozio-kontzeptuen taixuketa izan da. Honez gero euskararen aldeko borroka, maila ideologiko-teorikoan behintzat, zertxobait erraztua geratzen zaio euskaltzaleari. Nagusi den, jaun eta jabe esango genuke, hizkuntz ideologia menderatzaileari aurre egiteko lanabesa zorroztu eta egokitu egin digu euskaldunoi kanpotik etorri zitzaigun euskara-maitaleak.

Gainerako gizarte-arloetan bezalatsu, hizkuntz borroka praktikoak ere bere emaitzak hor ekarriko ditu ideia eta kontzeptuen mailetan. Gizarte-prozesu horren lehen urratsetan jarduera nahiko itsua izango da, problematikaren ezaugarri nagusiak artean begiz jo gabe daudelako. Esan daiteke beraz, aldi hori aldi ideologiko-deskriptiboa dela: auziari aurre egiten zaio, egin behar zaiola uste delako,

edota horretarako adina kontzientzia jadanik itxuratua dagoelako, eta oinarri-elementu batzuz jabeturik egon zegoelako.

1984ean, Hizkuntza Minorizatuen Soziologi-Kongresu bat antolatu zen Getxon eta hemen izan genuen Mackey jauna. Orduan prentsari egindako adierazpen batzutan bere ustez euskararen normalizaziobidea bigarren fasean edo kokaturik bide zegoen. Lehenengo fasea, kontzientzia hartzea zela zioen eta bigarrena honela zehazten zigun: *después viene una fase analítica, en la que se estudia, se diagnostica la situación* (Punto y Hora, 12 de Octubre 1984). Agian 1984ean omen geunden maila beretsuan gaude gaur egun ere: normalizaziobidearen egiazko neurrietatik baino hurbilago ikerketa-fase batetik. Fase hauek ez dira noski nahitaez segida kronologiko soilean gertatzen, eta biak aldebereko suerta litezke: esan dezagun honenbestez, diskurtso berriaren fase hau Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa bere sare korapilotsuetan *ezagutzeko* aldia dela eta horra behinik-behin iritsi garea diskurtso zaharreko nozio ideologiko soiletan gaindi.

Hizkuntz borroka bere fase ilunetan gauditua baldin badugu, orain aski izango ote zaigu teoriaren argia euskara gere onera eramateko? Beste modu batera galdetuta: euskararen aldeko borroka ze neurritan determinatzen da diskurtso maila soil batean? Zer-nolako eragina dute alegia ideia-teoriek, elementu analitiko zuzen eta zorrotzek, gaur egungo kointura ideologiko orokorretan? Ni neu ez naiz oso baikorra zentzu honetan. Zorionez, ordeabada bestelakorik, eta horren lekukotzat dakart ondorengo aipua:

(...) sería suficiente, efectiva y fundamental aportación a dicha acción el que cada sociedad dominada asumiera una base teórica suficientemente sólida y coherente para no ser recuperada en la tormenta ideológica dominadora; para no sucumbir en el fango de los complejos provocados por la dominación (...)

*Gaur egun,
zenbaitek ez ditu
aipatu berri dugun
koiuntura
ideologiko orokor
horretako
elementu
determinanteak
behar bezala
kontutan hartzen
eta ideia-teorien
mailako jardunari
berez eskura ezin
dituen xedeak
egotzi dizkio*

(JA Irigaray: *Euskara bizitzaren kenkan*, 132. or.).

*Hizkuntz
borrokaren
etorkizuna ez
dago, ezin egonda
eta, euskaltzale
aitzindari baten
esku bakarrik*

Nere iritzi apalean, gaur egun, zenbaitek ez ditu aipatu berri dugun koiuntura ideologiko orokor horretako elementu determinanteak behar bezala kontutan hartzen eta ideia-teorien mailako jardunari berez eskura ezin dituen xedeak egotzi dizkio. Ukatu ezinezkoa da, jakina, nekez burutuko dela gizartearen arteko korapilo nagusiak kontzeptu teorikoen bidez askatzen ez baditugu. Halaz guztiz ere, esparru-sektore jakin batzuetako sistema ideologikoaren eragina, gure hau hizkuntz ideologizat hartu beharko genuke, erabat mugatua dago delako koiuntura orokorraren baitan. Neri ezinezkoa iruditzen zait, eta hainbestean, idealismoaren nahikeria, ideologi aparatu nagusi guztiak etsaiaren eskuetan ditugun garai hauetan, esparru jakin bateko gizarte borrokan garaile irten daitekeela uste izatea. Hizkuntz borrokaren etorkizuna ez dago, ezin egonda eta, euskaltzale aitzindari baten esku bakarrik: ezinbestekoa da sistema ideologiko orokorraren koiuntura eta indarra kontutan hartzea eta honen baitan hark izan dezakeen eragin-indarra zehatz-mehatz baloratzea. Gainerakoan, izugarrizko arriskua dago boluntarismoaren zangan amiltzeko.

Herri-mugimenduen beharra eta borroka-moten maila desberdinak

Herri-mugimenduen kinkaldian omen gaude. Mugimendu honen indar-eragina ahuldu egin omen da. Bere antolakuntza eta tinkotasuna pitzatu. Ez ote du guzti honek gorago aipatu dugun sistema ideologiko dominantearekin zer ikusirik? Ez ote da guzti hau koiuntura hori guztiz gure kontra dugulako gertatu? Ez ote du honek frogatzen esparru-sektore jakin bateko osasun teoriko aurreratuak ez duela berezko indar apartarik testuinguru ideologiko orokorra berarekin bat ez datorrenean? Baiezkoan gaude gu. Norbaitek esana da, teoria zientifiko eta praktika-errealitatearen arteko distantzia, distantzia estrukturala dela eta batak ez duela bestean

interbenitzen modu mekaniko eta zuzen batez. Askotan, ordea, inozokeria hau gailentzen zaigu: ideia zuzenak eta bidezkoak edukitzea aski dela arrazoa gure alde egoteko. Delako errealitate hori egunen batean gure aldera lerratuko delako itxaropenez, etika-moralaren legeak eta gizarte errealitate gordinaren lege-norabideak identifikatzeko joera biziegia dugu.

Ez dakigu-zehatz mehatz praktikaren maila desberdinak nola uztartzen diren teoriaren ekarpen-skuharmenekin. Badakigu ordea herri-mugimenduen eragin-indarra gezaldu egin zaigula azken bolada honetan. Honetan aho batekoak dira beste gauza askotan ez ahoz eta bestez batera ez datozenak ere. Bi ordezkari ekarriko ditugu hona, muturrez mutur ibil daitezkeenak, baina mugimendu honen beherakadaren baieztapenean akort daudenak.

Honela erantzun zion, behinola, Mari Karmen Garmendiak kazetariaren galdera honi: Zure ustez, zer protagonismo izan beharko lukete, prozesu guzti honetan, herri-mugimenduek?

Nik gizarte zibila esaten dut. Gizarte zibilaren protagonismoak garrantzi handia du, handi-handia. Euskal Herrian gizarte zibila burubelarri aritu da euskararen alde. Ikastolak, Euskaltzaindia eta beste hainbat arlotan gizartearen hainbat sektoreen lan eskergari esker atera dira aurrera, batez ere frankismoaren garaian. Gero, erakundeak eskuratzearekin eta ... etorri da halako utzikeria edo niri ez dagokit bat. Galdu egin da gizartearen protagonismoa, eta hori errekuperatu egin behar da.

(Egin, 1989-X-9).

Bigarren ahotsa Joxe Agustin Arrietarena da. Kazetariaren galdera hauze izan zen, berriz honekikoan: hizkuntza bat berreskuratzeko ahaleginetan, beharrezko litzatekeen entusiasmo soziala ez ote da lasatu?:

Delako errealitate hori egunen batean gure aldera lerratuko delako itxaropenez, etika-moralaren legeak eta gizarte errealitate gordinaren lege-norabideak identifikatzeko joera biziegia dugu

Nere ustez, egoera honek, burgesia nazionalista deitzen dugun gehiengo erlatibo honen gestora politikoek egin duten Estatuarekiko paktu mota horrek, instituzionalizazio konkretu honek, Baskongadetako Estatutoan eta Nafarroako Amejoramenduan gauzatu izan denak, ekarri du herritar sektore batzuren halako lasapen bat, halako delegazionismo bat, pentsatzea gure herriaren desnazionalizatzeko prozesu guztiz sakon eta aurreratua, zauri sakon hori, nolabait konponbidean zegokeela, botere administratibo delegatu horren eskutan

(Hemen, 1989-X-27).

*Bistan da gauza
nekeza dela arras
hizkuntza
menderatuaren
normalizazio
soziala egia
bihurtzea gizarte-
indar
hegemonikoak
mintzaira
menderatzailearen
aldetik daudenean*

Ñabardurak ñabardura, biek aitortzen dute herri-mugimenduaren nolabaiteko erlaxadura. Txillardegi eta beste askoren aldetik behin eta berriz errepikatu izan zaigu, auzi honi dagokionez, honelatsuko mezuaren larria: erne ibili hizkuntza menderatuaren patua aginte-instantzien eskuetan jartze hutsarekin, Irlandakoa hemen ere gerta ez dadin. Are gehiago azpimarratu beharko litzateke deialdiaren larritasuna aginte-instantzietan, gurean bezala, hizkuntza menderatzailearen interes soziopolitikoak defenditzen direnean. Hizkuntzaren normalizazioa botere arloan erabakitzen baldin bada, botere kontzeptua inondik ere aginte politikora murriztu gabe, bistan da gauza nekeza dela arras hizkuntza menderatuaren normalizazio soziala egia bihurtzea gizarte-indar hegemonikoak mintzaira menderatzailearen aldetik daudenean. Honelakoetan, beraz, are premia gorriagoan dago hizkuntza zapaldua herri-mugimenduen laguntzaz.

Euskal soziolinguistika aplikatua maisu dugunak honelako kontseiluak eman ditu berriki aldezkarri jaio berri batean gai honen inguruan:

(...) eta hor, dudarik gabe zera dago, herri mugimenduen eta agintearen arteko harreman dialektikoa. Bi polo horien arteko harremanetatik

*sortu beharko lirateke euskararen alde jokatu
luketen erreproduzio-mekanismo horiek,
berreskuratzen joateko baldintzak. Alor horietako
bat, bakarka ez da nahikoa euskalduntze-prozesu
hori bideratzeko. Arazoa konplexua da eta faktore
asko dago*

(Bat-Soziolinguistika Aldizkaria, 59. or.).

Herri-ekimenaren interbentzioa ez litzateke noraezoko baldintza izango aginte-mailetan gauzatzen den hizkuntz politika hizkuntza menderatzailearen ordezkari gauzatuko ez balitz. Eta, jakina, hemen gauzak argi eta garbi utzi behar dira, maiz askotan murrizkeria itxuragabeak egiten bait dira hizkuntz interesen ordezkari dela eta ez dela. Hizkuntz interesek aginte-erakundeetan duten ordezkari ez datza funtsean halako eta halakok indibidualki darabilten mintzairan. Ordezkari hori egiazkoa izateko, esan beharrik ez legoke noski, hizkuntza menderatua mintzatu beharko luketela halakoek; baina gauza bat da hizkuntzaren erabilpen indibidual-sinbolikoa eta beste bat hiztunlego-klase sozial nagusien *statu quo*-a iraultzea herri-hizkuntzaren aldera.

Amaitu baino lehen, azken gogoeten hondarrak bailiran, ondoko pentsakizunok jaurtiki nahi nituzke euskararen inguruko herri-mugimenduen auzia dela eta. Ideia hauen abiapuntu edo premisa, bestalde, zera da: euskararen normalizazio soziala posible dela noski, baina nik egungo joera nagusien nondik-norakoa oso oker hauteman ez badut behintzat, ez diot atarramendu onik ikusten gaur-gaurkoz. Hori horrela:

a) Herri-mugimenduen jarduera eta eskuharmena, baldintza orokor hauetan, hil ala bizikoa da: indar hau sendo eta zabal hedatu gabe, euskararen patua elebitasun diglosiko hilgarri baten ildotik bideratuko da Hegoaldeko eskualde batzuetan eta Iparraldetik, berriz, euskaldungoaren aztarna bisibileak ere ezkutatuko egingo dira belaunaldi gutxi barru.

*Gauza bat da
hizkuntzaren
erabilpen
indibidual-
sinbolikoa eta
beste bat
hiztunlego-klase
sozial nagusien
statu quo-a
iraultzea herri-
hizkuntzaren
aldera*

*Zabal jokatu zabal
jokatzeako aukerak
daudenean eta zabal
jokatzeak emaitz
onurakorragoak
dituenean; gogor eta
bortiz jokatu,
euskararentzat hil
ala biziko guneak
direnean eta
transmisiogune
horietan sarrera
ukatzen zaionean*

b) Euskararen aldeko herri-mugimenduok zabalak izan behar dute alde batetik, eta radikalak bestetik. Ea esplikatzen naizen. Zabaltasunari dagokionean, herri sektore gehienak, ahal den neurrian horretarako erakunde egokiak moldatu behar dira. Denok dakigunez, jadanik bada esperientzia positiborik zentzu honetan. Beste aldetik, radikalak izan behar dutela diodanean, batez ere jarduera-motaz ari naiz eta ez diskurtso-mailako arazo semantikoez. Esan nahi baita, euskararen ekintzabide bortitz samarrak egitea ezinbestekoa dela, bestela ez bait du borroka-mota honek ez eraginik ez oihartzunik bereganatzen azken aldi honetan ohartu ahal izan garen bezala.

c) Ondorioz, askorentzat ulergaitza egiten den dialektika hau proposatzen dut borrokarako taktika moduan: zabal jokatu zabal jokatzeako aukerak daudenean eta zabal jokatzeak emaitza onurakorragoak dituenean; gogor eta bortitz jokatu, euskararentzat hil ala biziko guneak direnean eta transmisiogune horietan sarrera ukatzen zaionean. Ukapen hau, indar-erlazio batzuren ondorioa da, eta hesitaba horiek ez dira diskurtso maila hutsean erabakitzen diren kontuak, ezta ere indar sozialen arteko *consesus*-aren mirariak suntsitzen dituenak. Gizarte-eraketaren indar-erlazio soziolinguistikoen ondorioa baldin badira, eta erlazio horiek aginte-egiturei baldin badarizkie, hizkuntz borroka forma leunekin batera forma bortitzak ere hartu beharko ditu fin gaiztorik ez egitekotan.

Azken ohar modura

Bati baino gehiagori harrigarria bezain ulertezina irudituko zitzaion honelako aztergai batean herri-mugimenduan nabarmendu diren elkarte-erakunde batzuk aipatu ere ez izana. Hain zuzen ere, aztergai honen barruan leku aparta izan beharko lukete AEK batek, AED eta antzeko erakundeek, eta azkenaldiko Egunkaria-ren fenomenoak. Halakoak arrazoi osóan daude, dudarik gabe. Nekez zirriborra lezake inork mugimendu zabal eta oparo honen

joan-etorririk aipatu berri ditugun elkarte-erakunde horien ibilbideari erreferentzia zuzenik egin gabe.

Izen eta izan konketuak aipagai izan ez baditugu ere, horrek ez luke adierazi nahi gure pentsabidetan barrena hezur-mamizko izaki horiek ausente egon direnik. Hemen ez da egin inolako historiarik, eta hori, besteak beste, arrazoi hauek direla bide. Bata: egileak ez du ez astirik ez informaziobide askirik izan historiarik idazteko, oraingoz behintzat bere eskura ez daudelako. Bigarrena: ez naiz gai sentitzen fenomeno konketu horien inguruko xehetasunak arakatzeko, horien nolabaiteko histori aztarnak azaleratzeko. Lan honetarako bada ni baino jende gaituagorik hor nonbait eta ez zait egoki iruditu dokumentazio-iturririk gabe gauzak lardaskatzen hastea.

Joxe Manuel Odriozola